

948 Merkatuak kulturako artisten eta profesionalen topagune bilakatuko du Iruña azaroaren 22ra (ostirala) bitarte

Esnaola kontseilariak ekitaldiaren kalitatea, berrikuntza eta egungo hizkuntzak nabarmendu ditu azokaren inaugurazioan; bertan, Nafarroako eta estatuko eta nazioarteko beste eskualdeetako 680 profesional baino gehiago batuko dira

Asteazkena, 2019ko Azaroaren 20a

Kultura eta Kiroleko kontseilari Rebeca Esnaolak gaur goizean inauguratu du Baluarten 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatua eta Profesionalen Topagunea, eta azaroaren 22ra bitarte bertan bilduko dira Nafarroako eta estatuko nahiz nazioarteko beste eskualdeetako kultur eta sormen industrietako 680 profesional baino gehiago.

Esnaolak eskaintako hitzaldian azpimarratu du "948 Merkatua aurrera doala sormen berrien inguruan ekitaldi berezi moduan kokatzeko. Besteak beste, kalitatea, berrikuntza eta egungo hizkuntzak eskaintzen ditu, eta, bertan, adierazpen sortzaile eta artistiko guztiak sartzen dira". Gainera, "Nafarroan diziplina guztiak egongo dira, izaera berritzailea eta garaikidea bultzatuaz eta kultura garatzeko ohiko espazioak kontuan hartuta, baina horren eta lurraldearen arteko lotura alde batera utzi gabe".

Era berean, nabarmendu du azokak aukera eskaintzen duela Nafarroako sormen artistiko erakargarri eta iradokitzaileenera hurbiltzeko; halaber, nazioarteko eta estatuko proposamen ez oso ezagunak ezagutzeko aukera egongo da".

Esnaola kontseilariarekin batera, honako hauek izan dira inaugurazioan: Herritarrekiko Harremanetako eta Harreman Instituzionaletako kontseilaria, Ana Olló; Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, Elma Saiz; eta Eskubide Sozialetako kontseilaria, Mari Carmen Maeztu. Era berean, erakundeetako karguak ere bertaratu dira; hala nola, Grial Ibáñez, Kultura Ministerioko komunitate autonomoekiko Kultur Lankidetzako zuzendariorde nagusia; Iruñeko Udaleko Kulturako zinegotzia, María García Barberena; eta beste eskualde batzuetakoak, tartean, Ande Sainte-Marie, Nouvelle Aquitaineko parlamentari hautetsia, 948 Merkatua etorri dena Alain Rousset Lehendakariaren ordezkari gisa; eta Joxean Muñoz, Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuordea.

Horrez gain, erakunde ezberdinetako ordezkariak parte hartu dute Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirola

Departamentuak 948 Merkatuaren esparruan deituriko Kultura eta Landa Lurraldeko mahai teknikoan. Azaroaren 22ra, ostiralera, bitarte hiru bilera instituzional egingo dira Baluartean, eta hori horietako lehena izan da.

Zehazki, ostegunean, azaroak 21, honako euroeskualdeen txanda izango da: Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa, Meuse-Rhin euroeskualdea (Europar Batasuneko hiru estatu kideak (Alemania, Belgika eta Herbehereak) bost eskualdek osatua) eta Mediterraneoko Pirinioetako euroeskualdea (Kataluniak, Balear Uharteek, Languedoc-Rousillon-ek eta Midi-Pyrénées-ek osatua). Ostiralean, Focus Group-ek jarraituko du, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen topaguneak, kultur politikak bateratzeko helburuarekin.

Bestalde, asteazken honetan, Nafarroako sormenaren leihoa garatuko da, Foru Komunitateko sortzaile artistikoei 948 Merkatuako publiko profesionalaren aurrean proiektuak aurkezteko aukera izan dezaten. Guztira, bederlatzi proposamen hautatu dira, eta 10 minutuko tartean azaldu beharko dituzte.

Horrez gain, egun osoan zehar Baluartean eta arratsaldero Iruñeko espazio ezberdinetan (Gaiarre Antzokia, Nafarroako Antzerki Eskola, Areto Zentrala eta Walden Liburu-denda Kafetegia), 30 showcase eta erakustaldi baino gehiago egingo dira, denak ere diziplina artekoak eta profesionalentzat nahiz publikoarentzat oro har irekiak.

Informazio gehiago nahi izanez gero: www.948merkatua.com.